

## Olinpiar Jokoen emankizuna egingo du Euskaltelek, Eurosporten bidez

- ***Euskaltelen Aisia TBko eta Guztia TBko bezeroek gehiago ordaindu gabe ikusi ahal izango dituzte 2024ko Parisko Olinpiar Jokoak, uztailaren 26tik abuztuaren 11ra bitartean.***

**Bilbon, 2024ko ekainaren 7an.-** Agile Content-en bidez, akordioa lortu da Warner Bros. Discovery-rekin, **Euskaltelen Aisia TBko eta Guztia TBko** bezeroek, gehiago ordaindu gabe, 2024ko Olinpiar Jokoak ikusi ahal izateko. Akordio horri esker, Eurosportek urteko kirol-hitzordu garrantzitsuenari egingo dion jarraipen zabalaz baliatu ahal izango dira Euskaltelen telebistako bezeroak. Ikuskizun seinalatua eta kirolzaleentzat ezinbesteko hitzordua izanik, kanal berriak jarriko ditu martxan Eurosportek.

Aurtengo Olinpiar Jokoetan, 32 kirol egingo dituzte 200 naziotako 10.000 atletak, eta 306 probatan banatuko dira dominak. Hori guztia ikusi ahal izango dute Euskaltelen Aisia TBko eta Guztia TBko bezeroek, inolako kostu gehigarririk gabe.

Bestalde, lehiaketa garrantzitsuenetara irudi- eta soinu-kalitaterik onenarekin iristeko, Olinpiar Jokoen irauten duten bitartean ere eutsi egingo dio Eurosportek bere 4K kanalari. Hain zuzen, kanal horren bidez emititzen dira gaur egun Roland-Garroseko partidak, Philippe-Chatrier pista nagusitik. Bereizmen handiko kanal horrek kirolaren emozio guztiaz gozatzeko aukera ematen du, bertatik bertara ikusita bezala, 4K teknologia Euskaltelen sarearen kalitatearekin konbinatuta ematen duen bereizmenari esker.

Hala, beste behin ere, telekomunikazioen euskal operadoreak entretenimendu-eskaintzarik onena egingo du, bezeroei urteko kirol-ekitaldi garrantzitsuena eskainiz, eta, betiere, ikus-entzunezko merkatuko edukirik nabarmenenak eskaintzeko estrategiarekin bat etorriz.

\* *Agile Content-en telebista-zerbitzuak dira Aisia TBa eta Guztia TBa, eta OVER THE TOP NETWORKS IBÉRICA SLUK ematen ditu.*